[129] Biblioteca de la Real Academia de la Historia, Salazar y Castro, B-98, fº 35r y v. Un documento publicado por Daumet al que alude MEREGALLI, confirma lo contenido en el texto genealógico del Mariscal Ayala ya que se sabe que Charles VI condona por estas fechas una deuda de Juan I de 100.000 francos, a excepción de 10.000 que el rey castellano tendría que pagar a Pero López de Ayala (MEREGALLI, *ob.cit.*, 89-90).



Dña. Leonor de Guzmán, esposa del Canciller y Dña. María de Sarmiento, su nuera.
Detalle del retablo de la Virgen del Cabello en el Torreón-Capilla de Quejana.
Dña. Leonor ejerce una activa dirección de la Casa de Ayala durante el cautiverio de D. Pero.

Leonor de Guzman, Kantzilerraren emaztea, eta Maria de Sarmiento, erraina.
Cabelloko Ama Birjinaren erretaularen xehetasuna, Kexaako dorre-kaperan.
Leonorrek aktiboki zuzendu zuen Aialatarren Etxea, Pero preso egon zen bitartean.

Otras fuentes cronísticas del XV, -particularmente Lope García de Salazar-, también recogen esta circunstancia, de la que la esposa del futuro Canciller parece salir bien librada. De hecho, Leonor de Guzmán ejerce durante los meses de cautiverio de su marido una activa dirección de la Casa de Ayala. Así se desprende de los últimos estudios realizados sobre Quejana, que plantean la hipótesis de que el programa iconográfico y el estilo del famoso retablo no fueran dirigidos por Pero López, sino por su esposa[128]. Pero lo cierto es que el rescate de Pero López será cuantioso:

*e fue doña Leonor su muger por él e quitólo por treinta mil doblas de oro, e pagó luego dellas veinte mil, e pusose Fernán Pérez su fijo maior en rehenes por las diez mill. Estas diez mill las pagó el rey don Juan de Castilla. Y el rey de Francia le dio para aiuda de la dicha redempción, diez mill francos de oro.*[129]

La fecha de 1388 para la liberación del futuro Canciller es defendida por aquellos autores que han observado cómo la *Crónica de Juan I* retoma ese año el estilo directo de la narración. Por su parte,

horretan hartu zuelako berriro, narrazioaren estilo zuzena. Bestalde, Floranesek eta Lozoyako Markesak uste dute 15 hilabeteko presoaldia jasan zuela, eta falkoneria liburua amaitu eta gutxira askatu zutela, hau da, 1386ko ekainaren ostean[130]. Kexaako Agiritegiko testu anonimoak eta berandukoak aipatzen dituen zazpi hilabeteak kontuan izan gabe, aukerarik onargarriena da hogeita hamar hilabete egin zituela, Aiala Mariskalak lehen aipatutako testu genealogikoan dioen bezala. Kopuru hori bat dator, batetik, kroniken ikertzaileek ateratako ondorioekin, bestetik, Kantziler izango zenaren erreskatea aipa zezakeen frantses dokumentu batekin, eta, azkenik, Gaztelan horren gainean egindako lehenengo aipamenekin (1388. urtekoak)[131].

Gure protagonistaren itzulerari buruz dugun lehenengo dokumentuzko aipamena Juan I.aren kronikan azaltzen da, eta horrek Pero Lopez 1388. urtean agertzen digu berriro. Erregea Lancasterreko dukearekin bilera bat egiteko abiatu zen, baina geldiune bat egin zuen bere bidaian, gaixotu egin zen-eta. Orduan Pero Lopez Baionara bidali zuten ingelesari azalpenak ematera, beste bi enbaxadorerekin batera. Lancasterreko dukeak mesfidantza erakutsi arren, dirudienez Pero Lopezek, Osmako artzapezpikuak eta erregearen aitorleak misioa bete zuten, eta Gasteizera itzuli ziren, beharbada 1389. urte hasieran[132]. Enbaxadoreak itzuli eta berehala, Kronikak kontatzen du gortea Gasteiztik Burgosera joan zela, eta han egun batzuk igaro zituztela, gero Segoviara joateko ("*unos días, e dende acordó de ir a Segovia*"), eta han Gorteak deitu ziren. Nahiz eta Kronikak aipatu ez, esan daiteke Pero Lopezek errege-segizioari jarraitu ziola eta ez zutela Portugalera bidali, Avisko Maestrearekin su-etena hitzartzera[133]. 1389. urteko lehenengo hilabeteetan, Pero Lopezek Gortearekin bidaiatu zuen, familiako arazo batzuei egin zien arreta[134] eta Lenlinghameko ituna sinatu zuen enbaxadore gisa, Gipuzkoako merio nagusi titulua zuela[135].

Urte bete geroago, Kantziler izango zena Guadalajaran zegoen, Gorteetan esku hartzeko. Floranesen lana eta gero, onartu egin da Pero Lopez izan zela Juan I.a konbentzitu zuen diskurtsoa egin zuena, izan ere erregeak uko egin nahi izan baitzion -partzialki- bere koroari, lurraldeak segregatzeko saiakera batean[136]. Interpretatu izan da ere, gure protagonista Penintsulako iparraldean (eta, batez ere, *la tierra de Vizcaya, e de Álava, e de Guipúzcoa*) hain zabalduak zeuden patronazgo laikoen eskubideen defendatzailea izan zela[137]. Aktiboki parte hartu zuen Gorte horietan diseinatutako berrantolaketa administratibo sakonean. Amaitu zirenean, Pero Lopezek Brihuega, Roa, La Granja, Segovia, Turégano eta Alcalá de Henaresera lagundu zuen erregea, eta azken hiri horretan hil zen erregea urriaren 9an[138].

Egun batzuk geroago, hilaren 28an, Aragoiko Juan I.ak Galcerán de Queralt mariskalaren gaineko gomendiozko gutun bat idatzi zien errege gazteari, erreginari eta Pero Lopez de Aialari, besteak beste[139]. Dokumentu horrek azaleratzen duenez, gure protagonista oso garrantzitsua zen gortean. Enrike III.aren adin-txikitasunean pertsona hauek nabarmendu ziren: Benaventeko dukea, don Pedro kondea, Toledoko artzapezpikua, Santiagokoa, Santiago eta Calatravako Maestreak eta Pero Lopez de Aiala. Denak ez zetozen bat; batzuentzat, erregeorde bat izendatu behar zen, eta, beste batzuentzat, eta horien artea Pero Lopez, hainbat

[130] Kronologia horren gaineko arazoari buruz ikus: MEREGALLI, *ob.cit.*, 90.

[131] MEREGALLI, *ob.cit.*, 89-90.

[132] *Crónica de Juan I*, hamaikagarren urtea (1389), II. kap.

[133] Pero Lopezek berak dioenez, enbaxadetako bere kidea, fray Fernando de Illescas erregearen aitorlea, bidali zuten. Gure protagonistak bizi izan zituen gertakarien, eta, beharbada, erreskatearen gainean ordaintzeko geratu zenaren ondorioz -10.000 dobla, lehenengo semearekin bermatuta-, ez zen komeni Pero Lopez misio hori betetzera bidaltzea.

[134] Zuritak dioenez, 1389ko otsailaren 22an, Miguel de Gurrea Aragoiko zaldunaren eta bere iloba Elviraren, Pero González de Mendozaren eta Aldonza de Aialaren alabaren, arteko ezkontza hitzartu zuen Guadalajaran. ZURITA, Jerónimo. *Anales de Aragón*, III, 182; honek aipatua: MEREGALLI, *ob.cit.*, 93. Aialatarren testu genealogikoek ezkontza hori jasotzen dute, nahiz eta bat etorri ez senarraren izena aipatzerakoan: Kantzilerraren izen bereko bilobaren testuak Miguel deitzen dio, eta Aiala Mariskalarenak honela *"don _ñigo de Gurrea, cavallero de Aragón"* (El Escorialeko Liburutegia, ms. sign. K.I.13. fº 221r eta Historiaren Errege Akademiako Liburutegia, Salazar y Castro, B-98, fº 34v, hurrenez hurren).

[135] RYMER, *Foedera*, III, IV, 42; honek aipatua: MEREGALLI, *ob.cit.*, 94.

[136] MEREGALLI, La vida política del Canciller Ayala..., 94 eta hurrengoak.

[137] José Luis Martín horren aldekoa da, eta duen luzeragatik eta estilogatik izan daiteke: Gorte horietako berbaldirik luzeena da (ikus: *Crónica de Juan I*, hamabigarren urtea (1390), XI. kap.). Patrono laikoen gaineko argudioak ez zirela benetakoak esan zuen Andrés Eliseo de MAÑARICÚA NUEREk (Orígenes del Señorío de Vizcaya, *Edad Media y Señoríos: el Señorío de Vizcaya*, Bilbo, 1972, 22). Lope Garcia de Salazarrek bazuen 1390. urteko berbaldiaren berri, eta bere hitzak balira bezala aipatu zituen: *"la destruyçión de España", "los Moros (..) en la dicha persecuçión", "por falta de iglesias"*..., eta hori guztia, *"a serviçio de Dios"* eta *"ensalçando la Santa Fe Católica"* (GARCÍA DE SALAZAR, *Libro de las bienandanças e fortunas..*, IV, 429-430). Beste hau ere ikus: DÍAZ DE DURANA, José Ramón. La justificación ideológica del poder nobiliario e hidalgo en la obra cronística del Canciller Pedro López de Ayala y de Lope García de Salazar, *El poder en Europa y América: mitos, tópicos y realidades*, Bilbo, 2001, 69-94.

[138] MEREGALLI, La vida política del Canciller Ayala..., 99-100.

[139] Ikus: LÓPEZ YEPES, Documentos sobre el Canciller.., 1390-I dok. Honek argitaratua: LÓPEZ DE MENESES, Nuevos datos.., IX. dok. Queralt Mariskalaren gomendiozko gutuna 1391ko martxoaren 28an idatzi zen berriro, gauza bera esanez (ikus: LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, 1391-I. dok. Honek argitaratua: LÓPEZ DE MENESES, *ob.cit.*, X. dok.).

Floranes y el Marqués de Lozoya mantienen que fueron 15 meses y sería liberado poco después de terminar el libro de cetrería, esto es, después de junio de 1386[130]. Sin tener en cuenta los siete meses que afirma el texto anónimo y tardío del Archivo de Quejana, la opción más plausible parece la de los treinta meses que aporta el Mariscal Ayala en el texto genealógico al que aludíamos. Esta cifra coincide con las impresiones de los estudiosos de las crónicas, con un documento francés que podría aludir al rescate del futuro Canciller, y con las primeras referencias castellanas que no llegan hasta 1388[131].

La primera referencia documental que tenemos del regreso de nuestro protagonista es la *Crónica de Juan I* que nos lo vuelve a mostrar a finales de 1388. El rey, camino de las vistas con el duque de Lancaster, detiene su viaje debido a la enfermedad. Pero López es enviado entonces a Bayonne junto a otros dos embajadores a dar explicaciones al inglés. A pesar de la reticencia del Duque de Lancaster, Pero López, el obispo de Osma y el confesor del rey parecen cumplir su misión y vuelven a Vitoria posiblemente a principios de 1389[132]. Nada más volver los embajadores, la *Crónica* narra que la corte se traslada de Vitoria a Burgos, donde pasa *algunos días, e dende acordó de ir a Segovia,* desde donde convoca Cortes. Aunque la *Crónica* no lo dice, es posible concluir que Pero López siguió el séquito regio y también es plausible que no fuera enviado a Portugal a concluir una tregua con el Maestre de Avis[133]. Durante los primeros meses de 1389 Pero López viaja con la Corte, atiende asuntos familiares[134] y firma como embajador el tratado de Lenlingham, ostentando el título de merino mayor de Guipúzcoa[135].

Un año después, el futuro Canciller está en Guadalajara para asistir a las Cortes. Desde Floranes se ha dado por hecho que Pero López es el autor del largo discurso que disuade a Juan I de renunciar, -parcialmente-, a su corona en un inaudito intento de segregación de territorios[136]. También se ha interpretado que nuestro protagonista es el defensor de los derechos de patronazgos laicos tan generalizados en el norte peninsular, muy especialmente en *la tierra de Vizcaya, e de Álava, e de Guipúzcoa*[137]. Participó activamente en la profunda reorganización administrativa diseñada en estas Cortes. A su término, Pero López acompañó al rey a Brihuega, Roa, La Granja, Segovia, Turégano y Alcalá de Henares, donde el rey murió el 9 de octubre[138].

Pocos días después, el 28 de ese mismo mes, Juan I de Aragón escribe al joven rey, a la reina y a Pero López de Ayala, entre otros, una carta de recomendación para el mariscal Galcerán de Queralt[139]. Este documento revela que nuestro protagonista se encontraba en primera línea de la corte. La minoridad de Enrique III había colocado como hombres fuertes al Duque de Benavente, al conde don Pedro, al arzobispo de Toledo, al de Santiago, a los Maestres de Santiago y Calatrava y a Pero López de Ayala. Las opiniones están divididas entre los que optan por nombrar un regente y los que, como Pero López, apuestan decididamente por un Consejo de Regencia formado por varios notables[140]. Reunidos en Madrid, este grupo de notables encuentra fuerte oposición en el Arzobispo de Toledo y el Duque de Benavente. De allí se trasladan con el joven rey a Segovia donde están el 16 de mayo de 1391[141]. Once días después nuestro protagonista, aún en Segovia, rubrica la alianza con Francia[142]. El Consejo, a falta de reunir a todos sus miembros, se traslada a Cuéllar y después a Simancas. La necesidad de convocar Cortes y cerrar la crisis política fuerza el acuerdo entre las partes en una reunión celebrada *en un*

[130] Sobre los problemas que esta cronología, véase MEREGALLI, *ob.cit.*, 90.

[131] Véase MEREGALLI, *ob.cit.*, 89-90.

[132] *Crónica de Juan I*, año undécimo (1389), capt. II

[133] Quien sí es enviado, según narra el propio Pero López, es su compañero de embajada, fray Fernando de Illescas, confesor del rey. Los sucesos vividos por nuestro protagonista y, posiblemente, el pago pendiente del rescate -10.000 doblas garantizadas con la persona del primogénito-, hacían poco recomendable enviarlo en esta misión.

[134] El 22 de febrero de 1389, según informa Zurita, acuerda en Guadalajara el matrimonio entre el caballero aragonés Miguel de Gurrea y su sobrina Elvira, hija de Pero González de Mendoza y Aldonza de Ayala. ZURITA, Jerónimo. *Anales de Aragón*, III, 182; citado por MEREGALLI, *ob.cit.*, 93. Los textos genealógicos de los Ayala recogen este enlace aunque con discrepancias acerca del nombre del marido: el texto del nieto homónimo del Canciller le llama Miguel, mientras que el del Mariscal Ayala le llama *"don _ñigo de Gurrea, cavallero de Aragón"* (Biblioteca de El Escorial, ms. sign. K.I.13. fº 221r y Biblioteca de la Real Academia de la Historia, Salazar y Castro, B-98, fº 34v, respectivamente).

[135] RYMER, *Foedera*, III, IV, 42; cita MEREGALLI, *ob.cit.*, 94.

[136] MEREGALLI, *La vida política del Canciller Ayala..*, 94 y ss.

[137] Defiende la atribución José Luis Martín, y por extensión y estilo podría ser más que factible: es, con mucho, el más largo parlamento referido a estas Cortes (véase *Crónica de Juan I*, año doceno (1390), capt. XI). Sobre la nula veracidad de los argumentos de los patronos laicos ya advirtió Andrés Eliseo de MAÑARICÚA NUERE (Orígenes del Señorío de Vizcaya, *Edad Media y Señoríos: el Señorío de Vizcaya*, Bilbao, 1972, 22). Lope García de Salazar conocía la hazaña retórica de 1390 e incluso la reproduce como si fueran argumentos propios: *"la destruyçión de España", "los Moros (..) en la dicha persecución", "por falta de iglesias"*, etc, todo ello, *"a serviçio de Dios"* y *"ensalçando la Santa Fe Católica"* (GARCÍA DE SALAZAR, *Libro de las bienandanças e fortunas..*, IV, 429-430). Véase también: DÍAZ DE DURANA, José Ramón. La justificación ideológica del poder nobiliario e hidalgo en la obra cronística del Canciller Pedro López de Ayala y de Lope García de Salazar, *El poder en Europa y América: mitos, tópicos y realidades*, Bilbao, 2001, 69-94.

[138] MEREGALLI, *La vida política del Canciller Ayala..*, 99-100.

[139] Véase LÓPEZ YEPES, Documentos sobre el Canciller.., doc. 1390-I. Lo publica LÓPEZ DE MENESES, Nuevos datos.., doc. IX. La carta de presentación o recomendación del Mariscal Queralt se repite el 28 de marzo de 1391 con idénticos destinatarios (véase LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, doc. 1391-I. Lo publica LÓPEZ DE MENESES, *ob.cit.*, doc. X).

[140] Sobre el Consejo de Regencia, como variante del Consejo Real instituido por Juan I, véase DIOS, Salustiano de. *El Consejo Real de Castilla (1385-1522)*, Madrid, 1982, 71.

[141] Ese día se dicta una sentencia arbitral en el pleito entre Pero López de Ayala y el concejo de Orduña por unas aldeas de su alfoz Véase LÓPEZ YEPES, Documentos sobre el Canciller.., doc. 1391-II, III y IV. Lo publica MARQUÉS DE LOZOYA, *Introducción..*, 109-117. El pleito venía de atrás, según se constata por una real ejecutoria dada en Valladolid el 14 de junio de 1380 (editan: URIARTE, Eugenio. *Historia de Nuestra Señora de Orduña la Antigua*, Bilbao, 1883, 157 (notas); e ITURRATE, José. La Colegiata de San Andrés de Armentia y las iglesias del valle de Orduña, *Boletín de la Institución "Sancho el Sabio"*, 21, 1977, 12-13). Sobre los

noblez osatutako Erregeordetzako Kontseilu bat egin behar zen[140]. Madrilen batzartuta, noble talde horrek Toledoko artzapezpikuaren eta Benaventeko dukearen oposizio handia aurkitu zuen. Handik Segoviara joan ziren errege gaztearekin, eta han zeuden 1391ko maiatzaren 16an[141]. Hamaika egun geroago, gure protagonistak, artean Segovian zegoela, Frantziarekin egindako aliantza errubrikatu zuen[142]. Kontseilua, artean kide guztiak batu barik zeudela, Cuéllarrera eta gero Simancasera joan zen. Gorteak deitu eta krisi politikoari amaiera eman beharra zegoenez, akordio bat hartu zen alderdien artean, toki honetan egindako bilkura batean *"en un logar que dicen Perales, que es una legua de Valladolid, e otra legua de Simancas"*. Azkenean, bederatzi kidez osatutako kontseilua izendatzea erabaki zuten, eta horien artean zegoen Kantziler izango zena[143]. Gorteak egin eta gero, 1392. urte hasieran, Gortea eta Erregeordetzako Kontseilua Segoviara joan ziren. Uda hasieran, Pero Lopez, *alcayde mayor de Toledo*, enbaxadore gisa bidali zuten Portugalera[144]. Bigarren enbaxada baten ostean, su-etenak hitzartu ziren Portugalekin, tratuetan Benaventeko dukearen injerentziak egonda ere. Gerotxoago, Gaztelako almirantegoagatik Alvar Pérez de Guzmanen eta Diego Hurtado de Mendozaren artean zegoen borroka amaitzea agindu zioten Pero Lopezi[145]. 1393ko maiatzean Pero Lopez enbaxadore gisa aritu zen berriro, oraingoan Lisboan[146].

Aguraingo jauna 1393ko abuztura arte egon zen Erregeordetzako Kontseiluan, urte horretan proklamatu baitzuen Enrike III.ak (behar baino lehenago) bere adin nagusitasuna[147]. Meregalliren ustez, hori garaipen politikoa izan zen Santiagoko Artzapezpikuarentzat, bai eta Pero Lopezentzat[148]. Enrike III.ak Bizkaira bidaiatu zuen foruak zin egitera, "*en cuanto se ayuntaban las Cortes*". Meregalliren arabera, Pero Lopez berarekin joan zen, baina Kronikak ez du horren berri ematen[149]. Honako hau izan zen ibilbidea: Bilbo, Aretxabalaga, Larrabetzu, Gernika, Bermeo, berriro Gernika, Durango -hortik Gasteizera abiatzen dira-, hortik Burgosera -hor ia gelditu ere ez dira egiten "*pestilencia de enfermedad*" zegoelako- eta, azkenean Madril. Azaroan Gorteak egin ziren Madrilen, eta hilabete batzuk geroago, 1394. urte hasieran, Frantziarekin zegoen aliantza berritu zen hiribilduan; bertan zen Pero Lopez, "*domino de Salvaterra*", lekuko gisa[150]. Uztailaren 21ean, Valladoliden, berriro ere lekuko gisa parte hartu zuen Enrike III.aren eta Benaventeko kondearen arteko adiskidetzean[151]. Sasoi horretan kokatzen du Rafael Lapesak kroniken behin betiko erredakzioa bere bertsio "bulgarrean", nahiz eta jakina izan gutxienez bi une desberdinetan idatzi zela[152].

Urte horretan eta hurrengoan, Pero Lopezek jarduera bete-betea izan zuen diplomatiko gisa. Klemente VII.a hil eta gero, Pedro de Luna aita santu berria aukeratu zenean, Pero Lopezek beste bidaia bat egin behar izan zuen Avignonera, 1394. urteko udazkenean, gisa honetara "*ambassiatoris regis Castelae*"[153]. Urriaren 25ean *rotulus* bat (edo hainbat ahaideren alde prebendak eskatzeko agiria) emateko aprobetxatu zuen. Fernando Sánchez de Sarmientorentzat (18 urtekoa eta Burgoseko diozesian apaiz zegoena) Ourenseko deantza eskatu zuen; bere kapilau Fernando Martínez de Villagonzalorentzat, Palentziako kalonjetza eskatu zuen; Juan Alvarez de Toledorentzat -beharbada bere iloba Juan Alvarez *el mozo* izenekoa- Toledon zuen kalonjetzaren berrespena eskatu zuen; Diego Ramirez de Guzmanentzat, Toledoko elizan mailaz

140 Erregeordetzako Kontseiluari dagokionez (Juan I.ak eratutako Errege Kontseiluaren aldaera gisa), ikus: DIOS, Salustiano de. *El Consejo Real de Castilla (1385-1522)*, Madril, 1982, 71.

141 Egun horretan arbitraje-sententzia bat eman zen osoko bilkuran Pero Lopez de Aialaren eta Urduñako kontzejuaren arteko auzia zela-eta, herri horretako alfozean zeuden herrixka batzuengatik. Ikus: LÓPEZ YEPES, Documentos sobre el Canciller.., 1391-II, III eta IV. dok. Honek argitaratua: MARQUÉS DE LOZOYA, *Introducción..*, 109-117. Auzia lehendik zetorren, 1380ko ekainaren 14an Valladoliden emandako errege-betearazpen batek erakusten duen bezala (hauek editatua: URIARTE, Eugenio. *Historia de Nuestra Señora de Orduña la Antigua*, Bilbo, 1883, 157 (oharrak); eta ITURRATE, José. La Colegiata de San Andrés de Armentia y las iglesias del valle de Orduña, *Boletín de la Institución "Sancho el Sabio"*, 21, 1977, 12-13). Urduña eta Aialatarren arteko gatazkak direla-eta, ikus: SARASOLA, Modesto. *La ciudad de Orduña y su vizcainía*, Bilbo, 1957, 28-80.

142 Hauek argitaratua: LÓPEZ YEPES, Documentos sobre el Canciller.., 1391-V. dok.; eta DAUMET, *Étude sur l'alliance de la France...*, 180-181 (40. dok.).

143 *Crónica de Enrique III*, lehenengo urtea (1391), XXVI. kap. Hala eta guztiz ere, kontseiluko noblerik garrantzitsuenek rehenak jarri behar izan zituzten, Benaventeko dukearen, don Pedro kondearen eta Santiagoko Maestrearen integritatea bermatzearren. Juan Hurtado de Mendoza, Pero Lopez de Aiala, Diego López de Estuñiga eta Juan Alfonso de La Cerdak seme-alaba batzuk jarri zituzten haien eskuetan. Gortea Burgosera aldatu zen 1391ko irailaren azken egunetan.

144 *Crónica de Enrique III*, bigarren urtea (1392), XI eta XIV. kap. Gaztelako eta Portugalgo enbaxadoreen arteko batzarrak Ciudad Rodrigon eta Sabugalen egin ziren.

145 Horrela kontatzen da *Relación fidelissima* lanean; izenburu horrekin ezagutzen da Kantzilerraren izen bereko bilobak agindutako testu genealogikoa (El Escorialeko Liburutegia, ms. sign. K.I.13. fº 218v). Meregallik dio lehenengoaren alde egin zuela "nahiz eta bere iloba izan arrebaren partetik". Aldiz, italiarrak ez zuen jakin lehenengoa Kantziler izango zenaren suhia zenik, Elvira alaban nagusiarekin ezkonduta baitzegoen.

146 Horrela azaltzen da Lisboan maiatzaren 15ean eta 16an datatutako portuges agiri batzuetan (ikus: LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, 1390-I, II eta III. dok. Honek argitaratuak: SUÁREZ FERNÁNDEZ, Luis. *Relaciones entre Portugal y Castilla en tiempos del infante D. Enrique*, Madrid, 1960, I, IV eta V. dok., hurrenez hurren).

147 1393ko maiatzaren 2an, Valentziatik, Aragoiko Juan I.ak jakinarazi zion gure protagonistari bere kontseilari *mosén* Pero Morera bidaltzen zuela Gaztelako gortera, berarekin Pero Boilen gaineko gai batzuen gainean hitz egitera, horrek Enrike II.ari eta Juan I.ari eskainitako zerbitzu batzuk zirela-eta (Ikus: LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, 1393-I dok. Honek argitaratua: LÓPEZ DE MENESES, Nuevos datos.., XI. dok.) Horrek erakusten duenez, estimu handia zitzaion Pero Lopezi Aragoiko gortean.

148 MEREGALLI, La vida política del Canciller Ayala..., 114.

149 *Crónica de Enrique III*, hirugarren urtea (1393), XIX. kap. Ikus: MEREGALLI, *ob.cit.*, 114.

150 Madrilen, 1394ko urtarrilaren 16an. Hauek argitaratua: LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, 1394-I. dok.; DAUMET, *Étude sur l'alliance de la France..*, 46. dok.; eta RYMER, *Foedera*, II, II, 93.

151 Hauek argitaratua: LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, 1394-II. dok.; eta SUÁREZ, *Estudios sobre el régimen monárquico de Enrique III*, Madril, 1953, 135-138 (II. dok.).

*logar que dicen Perales, que es una legua de Valladolid, e otra legua de Simancas*. Finalmente acuerdan nombrar un Consejo con nueve miembros entre los que se encontrará el futuro Canciller[143]. Tras celebrarse Cortes a principios de 1392, la Corte y el Consejo de Regencia se trasladan a Segovia. A principios del verano Pero López, *alcayde mayor de Toledo*, es enviado como embajador a Portugal[144]. Tras una segunda embajada se acuerdan treguas con Portugal a pesar de las injerencias del Duque de Benavente en los tratos. Poco después, a Pero López se le encomienda dirimir en la disputa por el almirantazgo de Castilla que enfrentaba a Alvar Pérez de Guzmán y a Diego Hurtado de Mendoza[145]. En mayo de 1393 Pero López vuelve a actuar como embajador, esta vez en Lisboa[146].

El señor de Salvatierra permanece en el Consejo de Regencia hasta agosto de 1393, fecha en que Enrique III se proclama mayor de edad anticipadamente[147]. A juicio de Meregalli esto es una victoria política para el Arzobispo de Santiago y, por extensión, para Pero López[148]. *En cuanto se ayuntaban las Cortes*, Enrique III viajó a Vizcaya para jurar los fueros. Entre los que le acompañan, según Meregalli, figura Pero López, pero la *Crónica* no da noticia expresa de ello[149]. El itinerario fue el siguiente: Bilbao, Arechabalaga, Larrabezúa, Guernica, Bermeo, de nuevo Guernica, Durango, -de donde sale hacia Vitoria -, de aquí a Burgos, -donde apenas recala dada la *pestilencia de enfermedad*-, y, finalmente Madrid. En noviembre se celebran las Cortes de Madrid, y pocos meses después, a principios de 1394 se renueva en la misma villa la alianza con Francia, a la que asiste Pero López como testigo, *domino de Salvaterra*[150]. El 21 de junio, en Valladolid, asiste de nuevo como testigo a la concordia entre Enrique III y el Conde de Benavente[151]. En estas fechas es en las que Rafael Lapesa sitúa la redacción definitiva de las *Crónicas* en su versión "vulgar" aunque, como es sabido, ésta se realizó, al menos, en dos momentos diferentes[152].

Durante ese año y el siguiente Pero López despliega una enorme actividad como diplomático. La elección de Pedro de Luna como nuevo papa en septiembre de 1394, tras la muerte de Clemente VII, motivó un nuevo viaje a Avignon de Pero López como *ambassiatoris regis Castelae* en el otoño de 1394[153]. El 25 de octubre aprovecha para emitir un *rotulus* o pliego de peticiones de prebendas en favor de varios parientes. Para Fernando Sánchez de Sarmiento, de 18 años, clérigo en la diócesis de Burgos, pide el deanato de Orense; para su capellán Fernando Martínez de Villagonzalo pide canonjía en

■

Vista panorámica de la Catedral de Toledo
Entre los hombres fuertes del reino de Castilla durante la minoría de edad de Enrique III figuran entre otros D. Pero López de Ayala y el Arzobispo de Toledo.

Toledoko Katedralaren ikuspegi panoramikoa.
Enrique III.a adin txikikoa izan zen artean, Gaztelako gizon garrantzitsuenen artean Pero Lopez de Aiala eta Toledoko Artzapezpikua egon ziren.

conflictos entre Orduña y los Ayala, véase SARASOLA, Modesto. *La ciudad de Orduña y su vizcainía*, Bilbao, 1957, 28-80.

[142] Lo publican: LÓPEZ YEPES, Documentos sobre el Canciller.., doc. 1391-V; y DAUMET, *Étude sur l'alliance de la France...*, 180-181 (doc. 40).

[143] *Crónica de Enrique III*, año primero (1391), capt. XXVI. No obstante, los principales nobles del consejo tendrán que poner rehenes para asegurar la integridad del Duque de Benavente, del conde don Pedro y del Maestre de Santiago. Juan Hurtado de Mendoza, Pero López de Ayala, Diego López de Estúñiga y Juan Alfonso de La Cerda, pondrán a disposición de aquéllos algunos de sus hijos. La corte se traslada a Burgos a finales de septiembre de 1391.

[144] *Crónica de Enrique III*, año segundo (1392), capt. XI y XIV. Las reuniones entre los embajadores castellanos y portugueses se celebran en Ciudad Rodrigo y en Sabugal.

[145] Así se narra en la *Relación fidelissima*, título por el que se conoce el texto genealógico ordenado por el nieto homónimo del Canciller (Biblioteca de El Escorial, ms. sign. K.I.13. fº 218v). Meregalli destaca que determinó a favor del primero "a pesar de ser éste sobrino suyo por parte de su hermana". Lo que no supo el italiano es que el primero era yerno del futuro Canciller, casado con Elvira, su hija mayor.

[146] Así consta en distintos documentos portugueses fechados en Lisboa el 15 y 16 de mayo (véase LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, doc. 1390-I, II y III. Los publica SUÁREZ FERNÁNDEZ, Luis. *Relaciones entre Portugal y Castilla en tiempos del infante D. Enrique*, Madrid, 1960, docs. I, IV y V, respectivamente).

[147] El 2 de mayo de 1393, desde Valencia, Juan I de Aragón comunica a nuestro protagonista que envía a su consejero mosén Pero Morera a la corte castellana a tratar con él ciertos asuntos referidos a Pero Boil, por los servicios prestados por éste a Enrique II y Juan I (Véase LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, doc. 1393-I. Lo publica LÓPEZ DE MENESES, Nuevos datos.., doc. XI. Esto demuestra la alta estima en que se tenía a Pero López en la corte aragonesa.

[148] MEREGALLI, *La vida política del Canciller Ayala..*, 114.

[149] *Crónica de Enrique III*, año tercero (1393), capt. XIX. Véase MEREGALLI, *ob.cit.*, 114.

[150] En Madrid, el 16 de enero de 1394. Lo publican: LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, doc. 1394-I; DAUMET, *Étude sur l'alliance de la France..*, doc. 46; y RYMER, *Foedera*, II, II, 93.

[151] Lo publican: LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, doc. 1394-II; y SUÁREZ, *Estudios sobre el régimen monárquico de Enrique III*, Madrid, 1953, 135-138 (doc. II).

[152] LAPESA MELGAR, Rafael. El Canciller de Ayala, *De Ayala a Ayala: Estudios literarios y estilísticos*, Madrid, 1988[1949], 19 y ss. Desde Zurita se cree que la primera versión (denominada *"abreviada"*) se elaboró a partir de 1383, mientras que la definitiva es posterior al abandono del Consejo de Regencia.

[153] López Yepes da noticia de una carta dirigida por este pontífice a nuestro protagonista, citada por Amador de los RÍOS (*Historia crítica de la literatura española*, Madrid, 1864, V, 114) cuyo original parece encontrarse en la Biblioteca de El Escorial, códices castellanos, L, j. 13, fº 113. Véase LÓPEZ YEPES, Documentos sobre el Canciller.., 169).





igotzea eskatu zuen; eta, azkenik Rodrigo Díaz de Aiala Calahorrako apaizarentzat, Burgoseko kalonjetza eskatu zuen[154]. Ez dakigu Gaztelara itzuli ote zen 1394ko neguan, baina hurrengo udaberrian Frantzian zegoen berriro[155]. Bidaia horretan lehenengo Parisera joan zen, frantses dokumentazioak Parisen kokatzen baititu bera eta beste enbaxadoreak apirilaren 16an[156]. Meregalliren arabera, maiatzaren 4an Frantziako erregearen aurrean aurkeztu behar zuen, bera izendatu baitzen bitartekari don Alfontsoren Gijongo matxinadari amaiera emateko. Egun batzuk geroago agertu zen, Bretainiatik, epez kanpo, baina, hala ere Frantziako erregeak hartu zegin zuen. Erregeak maiatzaren 8an gutun bat idatzi zuen eta bertan alderdien artean hitzartutako epea luzatzeko eskatu zuen[157]. Pero Lopezek berak dioenez *"al rey de Francia placía que se pudiese catar alguna manera buena por que el conde don Alfonso tornase al servicio del rey de Castilla"*[158]. Gaztelako enbaxadoreak horren aurka zeuden, eta, hasiera batean, Charles VI.ak Kondearen aurkako kautelazko neurriak har zitzan lortu zuten: *que le non diesen favor nin ayuda de gente, nin barcos, nin navíos, nin armas al dicho conde*[159]. Frantziako erregeak ez zuen etsi eta maiatzaren 15ean gutun bat bidali zion Enrike III.ari bere iritziaren berri ematen[160]. Meregalliren arabera, eta Enrike III.aren gaineko Kronikari jarraituta, Charles VI.ak "ez zion inolako laguntzarik eman don Alfontso kondeari, eta Gijon setiatu eta suntsitu egin zuten"[161].

Meregallik zalantzarik gabe esaten du Pero Lopezek, handik gutxira, Avignonera bidaiatu zuela, eta iradokitzen du Charles VI.ak 1395eko maiatzean Benedikto XIII.aren gortera (Villeneuve-lez-Avignonen zegoen batzartuta) bidalitako segizioarekin topo egin ahal izan zuela[162]. Ez dakigu egia den, hori esateko hilabete horietan Avignonen izandako gertakarien gainean egiten duen azalpen zehatza hartzen duelako oinarri. Kronika etenda, iturriak oso urriak dira Kantziler izango zenari dagokionez. Meregalliren arabera, 1396ko urriaren 26an Calaisen zegoen, Richard II.aren eta Charles VI.aren arteko bilkuraren lekuko gisa[163]; zalantzan jartzen du Gaztelan egon zenik, nahiz eta 1396ko irailaren 3an Enrike II.ak berretsi egin zuen La Granjatik, Pero Lopezek Kexaako monasterioari Abornikano eta Ameyugoren errenten gainean egindako donazioa[164]. Egun berean emandako beste diploma batek Enrike III.ak Pero Lopez de Aialari egindako konformazioaren berri ematen du, honako monasterio hauen gainean *"Derendano, que tobistes en tienpo del rey don Juan"* eta *"Albisulesaga, que vos dí, que son en tierra de Viscaya"*, horien errentekin kapilautzak fundatzeko Kexaako San Juan monasterioan[165]. Azken diploma horrek azaleratzen duenez, batetik, ezagunak diren mesedeak (Artziniega, Laudio, Orozko edo Agurain, zalantzarik gabe garrantzitsuenak) baino gehiago jaso zituen gure protagonistak. Eta, bestetik, Kantziler izango zenak, aitak bezala, Urduña inguruan ondarea -orubeak, errentak, patronazgoak- pilatzeko politika egin zuen[166]. Edonola ere, aipatutako dokumentuek

Detalle del báculo del Papa Luna
En 1394 es elegido Papa, Pedro de Luna, año en el que D. Pero López de Ayala está en Avignon como embajador del rey de Castilla.

Luna Aita Santuaren artzain-makila. 1394. urtean, Pedro de Luna aukeratu zuten Aita Santu; urte horretan Pero Lopez de Aiala Avignonen zegoen Gaztelako erregearen enbaxadore gisa.

[152] LAPESA MELGAR, Rafael. El Canciller de Ayala, *De Ayala a Ayala: Estudios literarios y estilísticos*, Madril, 1988[1949], 19 eta hurrengoak. Zurita eta gero, uste da lehenengo bertsioa (*"abreviada"* edo laburtua izenekoa) 1383tik aurrera egin zela, baina behin betikoa Erregeordetzako Kontseilua utzi eta geroagokoa da.

[153] López Yepesek aita santuak gure protagonistari zuzendutako gutun baten berri ematen du, Amador de los RÍOSek aipatzen duena (*Historia crítica de la literatura española*, Madril, 1864, V, 114); dirudienez originala El Escorialeko Liburutegian dago, gaztelar kodizeak, L, j. 13, fº 113. Ikus: LÓPEZ YEPES, Documentos sobre el Canciller.., 169).

[154] Honek argitaratua: BELTRÁN, *Bulario de la Universidad de Salamanca..*, I, 533 (287. dok.).

[155] Meregallik iradokitzen duenez, Avignonerako bidean, Pero Lopez Montserratera joan ahal izan zen Rimado lanaren 842. atalean adierazten duen botoa betetzera: *"prometo a Montserrat / yr faser mi oración"*. Hala ere, sasoi horretan, semeak, Fernan Perezek, hartzen du bere gain Aialatarren Etxearen zuzendaritza, errege agindu batetik deduzi daitekeen bezala; horren bidez, Fernan Perezek eskatuta, debekatu egiten zaio Bizkaiko Ermandadeari Orozko eta Laudioko haranetan sartzea ((MARTÍNEZ, Adela. *Fuentes jurídicas medievales del Señorío de Vizcaya: Cuadernos legales, Capítulos de la Hermandad, y Fuero Viejo (1342-1506)*, Donostia, 1986, 76). José Luis ORELLAk dokumentu hori abendukoa dela dio (El Régimen municipal en Vizcaya en los siglos XIII y XIV. El Señorío la Villa de Orduña, *Lurralde*, 3, 1980, 205).

[156] DAUMET, ob.cit., 190; honek aipatua: MEREGALLI, La vida política del Canciller Ayala.., 117.

[157] Hauek argitaratua: LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, 1395-I. dok; eta DAUMET, *Étude sur l´alliance de la France...*, 47 a dok.

[158] *Crónica de Enrique III*, bosgarren urtea (1395), VI. kap.

[159] *Crónica de Enrique III*, bosgarren urtea (1395), VI. kap.

[160] Hauek argitaratua: LÓPEZ YEPES, Documentos sobre el Canciller.., 1395-II. dok; eta DAUMET, *Étude sur l´alliance de la France..*, 47 b dok. Maiatzaren 15eko gutunaren edukia ez da argi geratzen Enrike III.aren gaineko Kronikan (*Crónica de Enrique III*, bosgarren urtea (1395), VI. kap.: *"que le rogaría* [Charles VI] *por él* [Alfontso]*"*, Gaztelako erregeari).

[161] MEREGALLI, *ob.cit.*, 119. Ikus: *Crónica de Enrique III*, bosgarren urtea (1395), VII eta VIII. kap.

[162] *E llegaron a Villanueva, que es del regno de Françia, en par de Aviñón de la otra partida* (Crónica de Enrique III, bosgarren urtea (1395), XV. kap.).

[163] MEREGALLI, La vida política del Canciller Ayala..., 119.

[164] Ikus LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, 1396-I. dok, 141. or. MARQUÉS DE LOZOYAk argitaratzen du Juan II.ak donazio horren gainean 1418. urtean egiten duen berrespena, Enrike III.aren berrespen hori aipatuz (*Introducción..*, 118-119).

[165] AHN, Kleroa, Araba, leg. 4 s/n. Honek argitaratua: AGUIRRE GANDARIAS, Sabino. In *Las dos primeras crónicas de Vizcaya. Estudio, textos críticos y apéndices*, Bilbo, 1987, 6. apend.

[166] Jaurerriko lurren mugak ixten zihoan, bereganatu nahi zuen Urduña izan ezik; izan ere, hiri titulua zuen lehendik, eta hiriaren bizkaitartasuna baldintzatua zegoen Bilboko, Gasteizko eta Burgosko merkatarientzat zuen balio estrategikoengatik. Aialatarrentzat Urduña lehentasuna zen, euren jaun-eskubideek hiriaren jurisdikzio naturalaren zati handi bat hartzen baitzuten. Hala ere, eta oso une zehatzak eta berandukoak kenduta, Urduñako hiria ez zen

Palencia; para Juan Álvarez de Toledo -posiblemente su sobrino Juan Álvarez *el mozo*- solicita la confirmación de su canonjía en Toledo; para Diego Ramírez de Guzmán pide un ascenso dentro de la iglesia toledana; y, finalmente, para Rodrigo Díaz de Ayala, clérigo calagurritano, solicita canonjía en Burgos[154]. Desconocemos si volvió a Castilla durante el invierno de 1394, pero en la primavera siguiente está, de nuevo, en Francia[155]. Esta vez se dirige primero a París donde la documentación francesa le sitúa a él y a los otros embajadores castellanos el 16 de abril[156]. Según Meregalli, el 4 de mayo debían presentarse ante el rey francés quien había sido nombrado árbitro para dirimir la rebelión del conde don Alfonso en Gijón. Éste se presenta algunos días después, vía Bretaña, fuera de plazo, pese a lo cual es oído por el rey francés. Éste, el 8 de mayo, emite una carta en la que reclama una ampliación del plazo convenido entre las partes[157]. Según el propio Pero López nos cuenta *al rey de Francia placía que se pudiese catar alguna manera buena por que el conde don Alfonso tornase al servicio del rey de Castilla*[158]. Los embajadores castellanos se oponen a ello y consiguen, en principio, que Charles VI tome medidas cautelares contra el Conde: *que le non diesen favor nin ayuda de gente, nin barcos, nin navíos, nin armas al dicho conde*[159]. El monarca francés no se resigna y envía el 15 de mayo una carta a Enrique III en la que le expone su postura[160]. Según Meregalli, siguiendo la *Crónica de Enrique III*, Charles VI "no concedió ayuda alguna al Conde don Alfonso y Gijón fue tomada y destruida"[161].

Meregalli no duda de que Pero López viajará poco después a Avignon sugiriendo que podía encontrarse en el séquito enviado en mayo de 1395 por Charles VI a la corte de Benedicto XIII reunida en Villeneuve-lez-Avignon[162]. No sabemos si este extremo es cierto, ya que se apoya únicamente en la pormenorizada descripción de los hechos sucedidos en Avignon durante esos meses. Interrumpida la *Crónica*, las fuentes se hacen más parcas respecto del futuro Canciller. Meregalli apuesta por situarlo el 26 de octubre de 1396 en Calais, como testigo del encuentro entre Richard II y Charles VI[163], dudando de su presencia en Castilla, a pesar de que el 3 de septiembre de 1396 Enrique III confirma desde La Granja la donación que hace Pero López al monasterio de Quejana de las rentas situadas en Abornicano y Ameyugo[164]. Otro diploma expedido el mismo día informa de la confirmación que hace Enrique III a Pero López de Ayala sobre el monasterio de *Derendano, que tobistes en tienpo del rey don Juan*, y el de *Albisulesaga, que vos dí, que son en tierra de Viscaya*, para que funde capellanías con sus rentas en el de san Juan de Quejana[165]. Este último diploma revela, primero, que nuestro protagonista había recibido más mercedes que las conocidas sobre Arceniega, Llodio, Orozco o Salvatierra, sin duda, las más importantes. Y, segundo, que el futuro Canciller sigue a su padre en la política de acumulación patrimonial, -solares, rentas, patronazgos-, en el entorno de Orduña[166]. En cualquier caso, los documentos reseñados no indican que Pero López estuviera necesariamente en Castilla en el momento de su concesión, aunque parece lógico pensar no sólo que él estaba tras la concesión de estas mercedes, sino que, en atención al honor recibido y a la reciprocidad de su vasallaje con el rey, su presencia en estos actos se hacía, como poco, deseable.

A nuestro modo de ver, es a partir del 20 de septiembre cuando el futuro Canciller abandona Castilla como embajador con destino a París y Avignon tal y como se recoge en los poderes otorgados ese

[154] Publica BELTRÁN, *Bulario de la Universidad de Salamanca*.., I, 533 (doc. 287).

[155] Meregalli sugiere que, camino de Avignon, Pero López pudo ir a Montserrat a cumplir el voto que expresa en el Rimado, 842: *"prometo a Montserrat / yr faser mi oración"*. No obstante, su hijo Fernán Pérez asume en este medio tiempo la dirección de la Casa, como se deduce de la orden regia que prohíbe, a petición del primogénito, la entrada de la Hermandad de Vizcaya en los valles de Orozco y Llodio (MARTÍNEZ, Adela. *Fuentes jurídicas medievales del Señorío de Vizcaya: Cuadernos legales, Capítulos de la Hermandad, y Fuero Viejo (1342-1506)*, San Sebastián, 1986, 76). José Luis ORELLA data el documento en diciembre (El Régimen municipal en Vizcaya en los siglos XIII y XIV. El Señorío la Villa de Orduña, *Lurralde*, 3, 1980, 205).

[156] DAUMET, *ob.cit.*, 190; citado por MEREGALLI, *La vida política del Canciller Ayala*.., 117.

[157] La publican: LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, doc. 1395-I; y DAUMET, *Étude sur l´alliance de la France*..., doc. 47 a.

[158] *Crónica de Enrique III*, año quinto (1395), capt. VI.

[159] *Crónica de Enrique III*, año quinto (1395), capt. VI.

[160] La publican: LÓPEZ YEPES, Documentos sobre el Canciller.., doc. 1395-II; y DAUMET, *Étude sur l´alliance de la France*.., doc. 47 b. El contenido de la carta del 15 de mayo apenas se intuye en la *Crónica de Enrique III*, año quinto (1395), capt. VI: *"que le rogaría* [Charles VI] *por él* [Alfonso]*"*, al rey de Castilla.

[161] MEREGALLI, *ob.cit.*, 119. Véase *Crónica de Enrique III*, año quinto (1395), capt. VII y VIII.

[162] *E llegaron a Villanueva, que es del regno de Françia, en par de Aviñón de la otra partida* (*Crónica de Enrique III*, año quinto (1395), capt. XV).

[163] MEREGALLI, *La vida política del Canciller Ayala*.., 119.

[164] Véase LÓPEZ YEPES, *ob.cit.*, doc. 1396-I, pág. 141. El MARQUÉS DE LOZOYA publica la confirmación de esta donación otorgada por Juan II en 1418, mencionando la confirmación anterior de Enrique III (*Introducción*.., 118-119).

[165] AHN, Clero, Álava, leg. 4 s/n. Lo publica AGUIRRE GANDARIAS, Sabino. En *Las dos primeras crónicas de Vizcaya. Estudio, textos críticos y apéndices*, Bilbao, 1987, apénd. 16.

[166] El coto señorial se iba cerrando a excepción de la deseada Orduña, que había obtenido el título de ciudad tiempo atrás y cuya vizcainía estaba mediatizada por su valor estratégico para los mercados de Bilbao, Vitoria y Burgos. Los Ayala entenderán Orduña como una de sus prioridades dado que sus derechos señoriales abarcaban buena parte de la jurisdicción natural de la ciudad. Sin embargo, y salvo momentos muy concretos y tardíos, la ciudad de Orduña no acabó en manos de los Ayala. Las reticencias del rey y, sobre todo, la oposición de buena parte de los vecinos, impedirán que todos los juros, situados, tenencias, asaltos y clientelas de los Ayala consigan inclinar la balanza en su favor. Sobre Orduña y las pretensiones de los Ayala, véase GONZÁLEZ CEMBELLÍN, Juan Manuel. Orduña en la edad media: del concejo abierto al concejo cerrado, *Primeras jornadas de Historia local: poder local*, San Sebastián, 1990, 66-67, y el más antiguo trabajo de Modesto SARASOLA, *La ciudad de Orduña y su vizcainía*.., 28 ss. Los Ayala verán compensadas sus indudables peticiones con la concesión de la importante villa de Salvatierra en 1384, lugar fronterizo con Navarra, Guipúzcoa y el señorío de Oñate. Otra merced alavesa será la también villa de Salinillas de Buradón que, sin embargo, pasará en el siglo XV a los Guevara al constituir la parte sustancial de la dote de Constanza de Ayala, nieta del Canciller. MARTÍNEZ DÍEZ, *Álava medieval*, II, p. 169. Edward COOPER ilustra los tardíos pleitos sobre este lugar (*Castillos señoriales en la Corona de Castilla*, Valladolid,

ez dakarte Pero Lopez Gaztelan egon zenik emakida egin zenean, baina logikoa da pentsatzea, batetik, mesede horien emakidaren atzean bera zegoela, eta, bestetik, jasotako ohoreari erantzunez eta erregearekiko zuen basailutza kontuan izanik, Pero Lopez bertan egon zitekeela.

